



# Gorputz geometrikoak

Manex Pujana 2.C


2020/5/25

# Gorputz geometriko motak

Prisma:

Prisma bi aurpegi berdin eta paralelo dituen poliedroa da, gainontzeko aurpegiak paralelogramoak dituena.

- Oinarriak: Plano paraleloetan kokatutako bi poligono berdin dira.
- Alboko aurpegiak: Paralelogramoak dira.
- Oinarriko ertzak: Oinarrietako poligonoen aldeak dira.
- Alboko ertzak: Oinarriak elkartzen dituzten alboko aldeak dira
- Erpinak: ertzek elkar ebakitzen duten puntuak dira.
- Prismaren altuera: oinarrien arteko distantzia da.




# Piramidea:

---

Piramidea oinarri poligonal bat duen poliedro bat da, gainontzeko aldeak puntu batean elkartzen diren triangeluak dituena.

- Oinarria: edozein poligono da.
- Alboko aurpegiak: piramidearen erpina deritzon puntuan bat egiten duten triangeluak dira.
- Oinarriko ertzak edo alboko ertzak: oinarriaren ertzak eta alboko aurpegiaren ertzak dira, hurrenez hurren.
- Piramidearen altuera: irudiaren erpinetik oinarriara trazatutako zuzenki bat da.




# Zilindroa:

---

Alde baten inguruan biratutako laukizuzen batetik sortutako gorputz geometrikoa zilindroa da.

- Sortzailea: ardatzaren aurkako aldearen luzera da.
- Oinarriak: bi zirkulu berdin eta paraleloak dira.
- Erradioa: oinarriaren erradioa edo ardatzarekiko al zutaren luzera da



# Konoa:

---

Katetoetako baten inguruan biratutako triangelu angeluzuzen batetik sortutako gorputz geometrikoa konoa da.

- Sortzailea: Triangeluaren hipotenusaren luzera da.
- Oinarria: Ardatzarekiko kateto zutak biratzean sortutako zirkulua da.
- Erradioa: Oinarriaren erradioa edo ardatzarekiko kateto zutaren luzera.




# Esfera:

---

Diametroaren inguruan biratzen den zirkuluerdi batetik sortutako biraketa-gorputza esfera da.

- Zentroa: zirkuluerdiaren zentroa da.
- Erradioa: zirkuluerdiaren erradioa da.



# Gorputz geometriko moten formak dituzten eraikinak:

Prisma: Torre del caballito, Mexico cityn

Piramidea: Louvre Museoa, Parisen

Zilindroa: BMW dorrea  
Milbertshofenen



Konoa: Intempo, Benidormen(hoenk ez dauka kono fo4rma gustiz baina goiko partean behera begiratzeko duen kono bat dago)



Esfera: Montrealeko biosfera, Montrealen.

